

Erref. kodea: LAF-218-191 [37]

219
Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Hernandorena, Teodoro: Unamuno'ren azken burukaldia. ijEuskaldungoarengatik..!!

==_==_==_

Unamuno'ren bizitzako egunik garratzenera irixten gera egun : bere azken aldi-ko burrukaldiaren egunera.

Gure burrukalariak egun artan esan zituan itzak berriztera ,ez da erreza Salcedo'k dionez. Salamanka'ko egunkariak ez dute aipatzen ere mintzatu zenik , eta bertze guztiak erran dutena bazterreratu bear degu,zuzen ez delakoz.

Hugh Thomas'ek berak " The Spanish civil War " liburuan esaten duana ezeztu bear degu ;"The golden horizon" Luis Portillo'k idatzi zuenetik artua delakoz .

~~Emilio Salcedo'k berak ematen digun iritzia eman aurretik mintzatu lekuko izan litezken gizon~~

Emilio Salcedo'k gertakizun ^{uneta} bere iritzi berezia ematen digu,lekuko izan litezken gizon ezagun ta egokienetakoeekin mintzatu ondoren : D. Esteban Madruga Jimenez, D.Francisco Maldonado de Guevara ,D.Jose Maria Peman, DJuan Crespo idazlea,D.Cesar Real de la Riva eta ^{Unamuno'ren} ~~bera~~ alaba Felisa'rekin ~~itzu egin~~

~~ondoren~~ . Gizon oiek denak batzar artan arkitzen ziran , eta Felisa'ren iduriz, ^{berak gertakizun ortaz} ~~gizon oiek~~ esaten digutena ~~engixdator gertakizun ortaz~~, bere aitaren gamdik daukan oroitzamenarekin ,ongi dator

Huna emen,

Alaz tan guztia Salcedo'k " con muchas reservas" ematen digun iritzia .

".....Don Miguel en pie, con voz mas incisiva y velada que nunca, con aire de indignacion, rompe el silencio que se ha cernido sobre el atestado Paraninfo .

Ezagutzen naizelako, ez nuala mintzatu nahi esan nuan. Baño mingañetik tira dirate eta egitera birtxatua naiz. Kristau zibilizazioaren aldeko gerla internazionalatzaz mintzatu dira hemen; neronek egin izandu det lanago .

Baño ez, guria gerla "incivil" bat besterik ez da . Gerla cibil batian urrumatua izandu nitzalako, ba-dakit zer esaten detan. " Vencer no es convencer y hay que convencer, sobre todo ". Eta errukirik ezagutzen ez duan gorrotuak ez zin lezake konbenzitu; adimenaren aurkako gorrotua , " el odio a la inteligencia que es critica y diferenciadora, inquisitiva, mas no de inquisicion . "

Baita ere katalan eta eskualdunetzaz mintzatu da hemen " la anti-España " dirala esanaz . Es Kubide edo arrazoi ~~berak~~ osuarekin berak beste ainbeste erran lezakete.

Hemen dago Gotzai jauna, katalana bera, ezagutu nahi ez dezuten dotriña erakasteko, eta ni euskalduna naiz , eta ez dakizuten español izkuntza erakusten ari naiz, nere bizi guztiam . Ori bai ^{de la} ~~de~~ Imperio, español izkuntzarena eta ez...?>

Ontan , buruzagi-mahinaren ertzian exerita zegon Millan Astray'k, zeukan esku bakarrarekin, ukaldikatzen du maina zutik emanaz eta jaun Erretoriari itza moztuaz .

" Mintza nitake...? Mintza nitake...? Erraten du zerbait...
Millan Astray zutitzen da " para justificar la situación del hombre de armas, los
motivos del levantamiento militar y ,al fin, perdido el control, debió hacer retem-
blar las bovedas del Paraninfo, aunque no se movieron, cuando bajo su ambito se oy-
yo el grito de : " Mueran los intelectuales" y " Viva la muerte ".....;

Unamuno beriala generalari zuzen-zuzen erantzuten asten da, generala bere aldetik
berriro mintzo da ta... batzarrian ixkamil-eskandala sortzen da .

Salcedo'k dionez : "...la serenidad de la esposa del jefe del Estado salva la si-
tuación."

Unamuno etxian sartzen da, eta dakigun bezela, andik egun gutxitara azken arnasa
emango du .

GERTAKIZUN HUNEN ERAKASPENAK .

Aste-astetik, Unamuno'ren mogimendu eta militarren aldeko leialtasuna eta zintzo-
tasuna ikusi ditugu. Gogor eta zaintsu goraldtu ditu mundu guztiaren aintzinian,
bai gizon bezela eta ere Unibersidadeko Erretor gisa .

Madril'eko, Errepublikaren aurka batzarreko edozein izlariet erran zezazken baño
itz gogorraguak erranak zituan bein baño geiagotan.

Guk diogu : Zerk orduan aldañazi du bat-batian gure erritarra...?

Aldahazi , ez Madril'en alde emateko , ez Errepublika goraltzeko . Aldahai, baka-
rrik mogimenduaren aurka mintzatzeko .

X X X

Unamuno'ren aldaketa huntan bada eskualdunentzat garrantzi aundiko zeaztasun
bat : Mogimenduaren aurka jauzitzen da, baño era berian eta bide batez , eskual-
dunak zaintzen eta goralyzen ditu " yo que soy vasco ", arroki esanaz .

Eta bere erritarrak goستن ditu, toki eta garai artan eskualdunak gorestiakin
batzar guztiaren asarrea bere aurka altxako zala jakifik .

Eta guk lengo galdera berrizten degu : Nola exprikatu gisa ortako eta bat-bate-
ko Unamuno'ren aldaketa hori...?

Gutziz bidezko da, gure iduriz, esatia, batzarreko izlariak gogor mintzatu ziral-
la eskualdunen aurka, orrek zauritu zuala Unamuno'ren eskual-sendimendua, eta o-
rrek esnahazi ta ernatu zuala gure eskualdun burukalaria, erran zituanak erra-

teko Denok ezagutzen ditugu bere seme-alaben aurka aixta mintzo diren guresuak; baño
beste norbeitek ezer gutxiena esatiakin , asarre bizian ematen diranak .

Oietakua degu Unamuno; berak zernahi erran lezake erritarrengatik, baño ezin du
eraman bertziak deusik erratia . Gogora gaitezen, adibidez, Bilbo'ko itzaldia-
rendotik bere txalotu zutenengatik erraten zuana : "...ni txalotu nindutenen ba-

rruan dago, "un fondo repugnante, hediondamente repugnante". ... " Erri bat, berak
gorroztatzen duten nere erria, barren-barrengo sendimenduetan zaurituta ikusti-

ak alaitzen ditu ."
Orrelakua zen Unamuno, eta orrek argitaratzen digu egun artako aldaketa .

X X X

3

AZKEN OTZA.

Geiago luzatu gabe,ona,gaurkoz, gure azkena: Unamuno'ren eskual-sendimenduen aurka aiiñ aixa mintzo diranak, Salamanka'ko gertakizun huntaz gogora ditezeta...iii

Hanoush

Faint, illegible text at the top of the page, possibly bleed-through from the reverse side.

Journal

